

Handi bezain txiki

Album irudidunentzako XVIII. Compostela Saria



Testua: **Arianna Squilloni**

Irudiak: **Raquel Catalina Ledesma**

Itzulpena: **Julio Soto Ezkurdia**

Saila: **Compostela Saria**

Gaiak: denboraren iragatea, bizipenak, zahartzaroa, oroimena; natura; artea, sormena; hiriko bizimodua, landako bizimodua; emozioak, erresilientzia.

IBIC: YBC (Album irudidunak)

Kartoizko azala | 22 x 29,5 cm. | 42 or. | Salneurria: 17 €

ISBN: 978-84-9172-439-1

HONAKO HIZKUNTZETAN ERE BAI: Gaztelania | Galegoa | Katalana | Portugesa | Italiara

ISBN: 978-84-9172-439-1



9 788491 724391

Oroimenari eta denboraren iragateari buruzko kontakizun hunkigarria.

Natalia landetxe koskor batean sortu eta hazi zen, basotik gertu. Etxea txiki geratu zitzaiola ohartu zenean, hirira joan zen, eta bertan bizimodu aberats eta bete-betea izan zuen. Baina denbora iragatearekin batera, hiria handitzen eta bera txikitzen joan ziren. Laurogeita hamar urte zituela, etxera itzultzeko ordua zela erabaki zuen. Han ustekabeko abentura berriak zeuzkan zain.

Nazioarteko XVIII. Compostela Saria album irudidunen kontzeptuari ezin hobeki lotzen zaion lana da, zeinean testua eta ilustrazioa modu goxoan ezkontzen diren. Oinarri poetiko sotila duen istorio bat da, irakurketa askotarikoak dituen, non Arianna Squillonik denboraren iragatea eta oroimena lantzen dituen, bazter utzi gabe natura, artea eta haien moduko bestelako gai batzuk. Bere konposizio narratiboan isiluneak nabarmentzen dira, protagonistaren bizi-bidaia zegoeta egitera gonbidatzen baitute.

Raquel Catalinaren ilustrazioak ikuspuntu, perspektiba eta irudien sekuentzien aniztasunagatik nabarmentzen dira, eta haietan paleta kromatikoaren erabilera neurritsua nabari da, zuri-beltzaren tratamenduarekin kontrastea.

Erlazionatutako liburuak:



ISBN: 978-84-9172-087-4



9 788491 720874

Arianna Squilloni

Milanen sortu eta Bartzelonan bizi da. A Buen Paso argitaletxea zuzentzen du 2008az geroztik, eratu zenetik. Pentsamenduaren Teoria eta Filologia Klasikoa ikasi ostean, bi hamarkada baino gehiago da edizio lanetan buru-belarri dabilela. Hainbat album irudidun, nobela eta saiakera idatzi ditu. Espezializatutako literatur aldizkarietan egiten dituen kolaborazioekin uztartzen du bere ibilera literarioa. Tailerrak eta ikastaroak eskaintzen ditu zenbait eskola eta unibertsitatetako masterretan, eta kongresu nazional eta nazioartekoetan ere hartzen du parte.

Raquel Catalina Ledesma

Arte Ederrak ikasi zituen Madrilan eta ilustrazioarekin lotutako graduondoko bat Valentzian. Azken horretan bizi da gaur egun. Bere lanak hainbat herrialdetako argitaletxeek argitaratu dituzte. 2023an Boloniako Nazioarteko Feriako Haur eta Gazte Liburuen saria jaso zuen, eta Baba Kamo erakusketarako hautatua izan da, baita Ilustraziorako Katalogo Iberoamerikarrerako eta Ilustrarte erakusketarako ere.

Handi bezain txiki

Album irudidunentzako XVIII. Compostela Saria

